



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko agorrrilaren 13ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko agorrrilaren hamahiruan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, LEKUMBERRY Xantxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2024ko agorrrilaren 9

Afitxatze eguna : 2024ko agorrrilaren 9

7. ERABAKIA: ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA GARATZEKO AZELERAZIO EREMUEN INGURUKO HITZARTZEA ETA HORIEN EREMUEN FINKATZEA

(8.8 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio 2024ko apirilaren 4ko erabakiz energia berriztagarrien ekoizteko lurreko instalazioen ezartzeko azelerazio guneen definitzeko hitzartzea finkatu zela, Frantziako 2023ko martxoaren 10eko energia berriztagarrien ekoizpena bizkortzeko 2023-175 legeko 15. artikuluan aurreikusten diren bezala.

Erabaki horren arabera:

– Energia berriztagarrien azelerazio eremuei buruzko informazio txostena kontsultagarria izan da 2024ko apirilaren 23tik 2024ko maiatzaren 7ra, publikoaren eta ikerketen ekarpenekin osatuz joan da, herriko etxean zen hitzartze erregistro bat ezarria baitzen jendeak bere oharrak egin zitzaizkien.

Auzapezak hitzartzearen emaitzak eta Herri Biltzarraren iritzia eta proposamenak aurkeztu ditu .

Honakoak dira energia berriztagarrien ekoizpena garatzeko lurreko instalazioen ezartzeko azelerazio eremuak eta horiei datxizkien eraikuntzak:

- Herrian existitzen diren teilatu azalera guztiak, panel fotovoltaikoak eta eguzki panel termikoak ezartzeko,

- Herriko eihera zaharrak energia hidroelektrikoa ekoizteko.

- Metanizazio unitateak har ditzaketen terrenoak

Auzapezaren azalpenak entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

IDENTIFIKATU DITU energia berriztagarrien ekoizpena garatzeko lurreko instalazioen ezartzeko honako azelerazio eremuak eta horiei datxizkien eraikuntzak:

- Herrian existitzen diren teilatu azalera guziak, panel fotovoltaikoak eta eguzki panel termikoak ezartzeko,
- Herriko eihera zaharrak energia hidroelektrikoa ekoizteko.
- Metanizazio unitateak har ditzaketen terrenoak

AGINDU DIO, Auzapezari honako erabakia jakinaraztea:

- Pirinio Atlantikoetako prefektura-erreferente bakarra den Idazkari nagusiari
- Euskal Hirigune Elkargoari
- Ipar Euskal Herria eta Seignanx-eko Lurralde Koherentzia Eskemaren ardura duen erakunde publikoari.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 9
Balizko boz kopurua : 9
ALDE : 9
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko agorrilaren 13an,
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/08/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/08/14an.